

Ermuko Agenda Txikia








KAIXO!


Ermuko Agenda Txikia naiz, ezagutzen nauzu?

Ez banauzu ezagutzen, ez kezkatu, nire istorioa kontatuko dizut, eta presta zaitez, laguntza beharko dut-eta!

Ni Ermuan jaio nintzen eta 2030eko Agendaren alaba eta Espainiako Hiri Agendaren ahizpa txikia naiz. Haiek konpontzen dituzte pertsonen eta naturaren arazoak munduko herrialde guztietan. Hori kontu erraza ala zaila dela uste duzu?

Oso misio zaila dirudi, baina sekretu bat kontatuko dizut: munduko pertsona guztiek laguntzen badigute, baita neskato-mutikoek ere, lortu egingo dugu.






Galdetu diozu inoiz zeure buruari zergatik hitz egiten duten hainbeste albisteetan klima-aldaketari buruz? Edo zergatik esaten diguten beti garrantzitsua dela zaborrik ez botatzea edo ura alferrik ez galtzea? Gure planetak gero eta baliabide natural gutxiago dauka eta urte batzuk barru Lurra bizitzeko leku hobe izatea nahi badugu, zaindu egin behar dugu.

Horregatik, herrialde guztiei irakatsi nahi diegu zer egin dezaketen pertsonen eta planetaren bizitza eta osasuna zaintzeko, ibaiak, ozeanoak, basoak eta animaliak barne.

Zuk uste duzu zure laguntzarekin planeta eta Ermua bizitzeko leku hobe izatea lor dezakegula? Ez kezkatu, Natu, Hiri, Klima, Argi, Ibil, Bizi, Txanpon, Etxe, Tekno eta Udal-ek lagunduko dizute eginkizun honetan.

Beraz...has gaitzen!






Nola egingo dugu hori?

Hurrengo orrialdeetan nire lagunekin egingo duzu topo, haiek nor diren azalduko dizute, eta, ondoren, beren jolasak konpontzen laguntzeko eskatuko dizute. Lortzen baduzu, Ermua hobea izan dadin nola lagun dezakezun ikasiko duzu.

Oso erraza da eta bakarrik egiteko modukoa, baina laguntza behar baduzu zure familiako norbaiti edo zure irakasleei eska diezaiokezu.

Gainera, Ermuko Udala ere laguntzen ari zaigu eginkizun honetan. Nahi duten pertsona guztiek hitz egin dezakete Udalarekin edozein gauzari buruz dituen ideiak kontatzeko; adibidez: kaleak hobetzeko, parke gehiago egiteko, zahartuta dauden eraikinak pintatzeko eta beste gauza askotarako.

Prestatu eskolako kutxatila zure kolore gogokoeneko pinturekin, zeren... bagoaz!!!



Nire fitxa

Izena:

Adina:

Ikastetxea:

Gogokoen ditudan gauzak:



Ikasi dudana:


■ _____

■ _____


■ _____





Gustatu zaidana:





Ni:









Kaixo,
Natu naiz

Natura maite dut, zoragarria da!

*Atsegin dut Ermuko pertsona guztiei gure zuhaitzak,
landareak, mendiak, basoak eta gure ibai eta lorategiak
zaintzen eta babesten ikas dezaten laguntzea.*

*Gainera, mundu guztiak gure historia, gure kultura, gure
jaiak eta euskara ezagutu ditzala nahi dut.*

Lagunduko didazu?





PASEATZEN

Natura oso garrantzitsua da,
bertan bizi dira animaliak eta
landareak. Zaindu egin behar dugu!

Ermua eta Zaldibar arteko
pasealekuan, zer ikusi nahiko zenuke?



*Ermuko kaleak, parkeak eta eraikin guztiak guztiz
politik, zainduta eta garbi egoteaz arduratzen naiz.*

*Era berean, pertsona guztiek estropezu egin edo
irristatu gabe paseatu ahal izateaz arduratzen naiz.*

Lagunduko didazu?

EHIZAN

Marrazki honetan pertsona guztiei edonora arazorik gabe iristeko laguntzen dieten hainbat gauza daude.

Lagunduko didazu aurkitzen?




BARANDA

BIZIKLETA

6 KALE-ARGI

BIDEA

GURPIL-AULKIA



Kaixo,
Klima naiz

Entzun duzu klima aldaketaren berri?

Klima-aldaketaren ondorioz, gero eta sute gehiago daude basoetan, ur gutxiago dugu, animalia-espezie batzuk desagertzen ari dira eta hirietan bero handiagoa egiten du.

Horrek asko kezkatzen nau, basoak berde eta animali eta lorez beteak egon daitezela nahi dudalako...

EGUNETIK EGUNERA HOBETUZ

Gure egunerokoan gauza asko egin ditzakegu klima-aldaketa geldiarazteko.
Bururatzen al zaizu baten bat?

Elkartu ideia bakoitza berak dakarren hobekuntzarekin.

Idea



Mendian surik ez egitea



Oinez edo bizikletan joatea



Lurrean dagoen zaborra jasotzea



Platerean dagoen janari guztia jatea

Hobekuntza



Janaria alferrik ez galtzea



Horrenbeste auto ez egotea



Suteak ekiditea



Landare, animalia eta intsektuei laguntzea



Kaixo,
Argi naiz

Ura eta argia maite ditut.

Nire energia guztia erabiltzen dut ermuarrek ur-tanta eta eguzki-izpi bakar bat ere alferrik ez galtzen ikas dezaten. Ura erabiltzen ez dutenean iturria ixten eta gelan ez daudenean argia itzaltzen irakasten diet.

Lagunduko al didazu energia aurrezten?


AURREZTU DEZAGUN

Etxe honetan argia edo ura aurreztu daitekeen leku asko daude. Aurkitu egin behar dituzu, eta gero koloreztatu. Ea ba!



Pista batzuk emango dizkizut: beroak ihes egiten du, ura alferrik galtzen da eta argia piztuta geratu da.





Kaixo,
Ibil naiz

Pila gustatzen zait bizikleta. Parkera eta eskolara joateko erabiltzen dut, baina, urrutira joaten naizenean aitona-amonak ikustera, autobusez joaten naiz beti.

Ez zait gustatzen kaleetan hainbeste auto egotea!

Izugarri kutsatzen dute eta zarata handia egiten dute gainera!

Ermuar guztiek autoak gutxiago erabiltzea eta oinez edo bizikletaz joan ahal izatea gustatuko litzaidake.

Zuri bizikleta gustatzen zaizu ala nahiago duzu oinez joan?

TXANGOAN


Gaur litxarrerria—dendara joan nahi dut nire bizikletarekin.

Bazatoz nirekin? Aurkitu dendarako bidea.



JOLASTEKO ORDUA DA

Jolasteko espazio bat sortu nahi dut. Marraz ezazu zer gustatuko litzaizukeen bertan egotea.






Kaixo.
Txanpon naiz

Nik haur guztiek gustuko dutena Ermuan bertan ikasi
ahal izatea nahi dut, enpresa guztiak jardunean
jarraitzea lana egon dadin, eta hirian dendak egon
daitezela behar dugun guztia bertan erosteko.

Lagunduko didazu hori egia bihurtzen?



NIRE DENDARIK GUSTUKOENAK

Marraztu Ermua bertan egotea gustatuko litzaizukeen denda guztiekin.





Kaixo,
Etxe naiz

Niri gustatuko litzaidake jende guztia bere etxean arazorik gabe mugitzea; dena laguntzarik gabe egin ahal izatea, esnatzen direnetik lotara joaten diren arte.

Ermuko aitona-amonak beren ateraino eramango dituen igogailua edukitzea, etxean arazorik gabe bainatu ahal izatea eta bere etxeaz zailtasunik gabe gozatzea.

Mundu guztiak behar duena edukitzea nahi dut, etxean ondo pasa dezaten!

ETXEZ ALDATUKO GARA

Lagunduko didazu letra-zopa honetan etxea seguruago
egin dezaketen gauzak bilatzen?

T	U	H	H	I	S	E	F	G	S	I
E	E	E	T	A	E	R	S	R	F	G
L	J	L	G	A	R	A	B	I	A	O
E	T	D	I	A	K	N	B	L	T	G
F	E	U	D	R	T	E	K	A	R	A
O	L	L	T	R	I	M	A	N	J	I
N	E	E	E	A	S	E	S	D	N	L
O	F	K	R	D	U	T	X	A	T	U
A	O	U	C	E	L	E	G	D	E	A
K	N	A	S	R	E	L	P	O	N	R
O	T	A	K	A	T	A	K	A	J	M
M	T	K	L	I	H	O	L	E	K	T

IGOGAILUA

DUTXA

GARABIA

HELDULEKUA

TELEFONA

TAKA-TAKA




Kaixo,
Tekno naiz

*Asko gustatzen zaizkit robotak eta ordenagailuak,
teknologia guztia!*

*Horri esker, jolastu, ikasi eta gauza berriak asma
ditzaket!*

*Horregatik nahi dut, Ermuko pertsona guztiek
teknologia erabiltzen ikas dezatela.*

Zuri teknologia interesatzen zaizu?



ALDE ONA ETA ALDE TXARRA

Teknologiak gauza onak dakartza, baina arriskutsua izan daiteke.
Lagunduko didazu azpiko fitxa betetzen gauza bakoitzaren alde on
eta txarrekin ?



Mugikorra

Alde ona: _____

Alde txarra: _____



Ordenagailua

Alde ona: _____

Alde txarra: _____



Telebista

Alde ona: _____

Alde txarra: _____



Bideojokoak

Alde ona: _____

Alde txarra: _____



Kaixo,
Udal naiz



Pentsatu al duzu inoiz nagusia zarenean Ermua nolakoa izatea gustatuko litzaizukeen? Kalera irtetean zer nahiko zenukeen aurkitu?

Lagunduko didazu gure hiria etorkizunean nolakoa izatea nahi dugun Udalarari kontatzen, egia bihur dezan?

MEZU ELEKTRONIKO BAT DAUKAZU

Gaur alkatearekin hitz egin nahi dut eta horretarako mezu elektronikoa bidaliko diot. Ermuan zer gauza gustatzen zaizkidan eta zer hobetu litekeen kontatu nahi diot. Bazenekien ordenagailu batetik bidaltzen badiozu mezua alkatearengana zuzenean iritsiko dela? Ez baduzu ordenagailurik erabilgarri, orri hau bete eta Abiapuntun entregatu dezakezu.



Mezu berria





Norentzat: alcaldia@udalermua.net

Norena:

Alkate hori,

Bidali








Familiarentzako eta irakasleentzako jarraibideak

Gida honek 5 eta 10 urte bitarteko haurrei Ermuko Hiri

Agenda ezagutaraztea du helburu. Modu autonomoan lan egin ahal izateko prestatua dago, baina, hala ere, jarraian utziko dizugu laguntza eskaintzeko informazio interesgarria.

Jakingo duzunez, Ermuko Hiri Agenda hiriaren ibilbide-orria da 2030. urtean garapen iraunkorrerantz aurrera egiteko, eta 2022an egin zen, aurrez eta modu parte-hartzailean.

Beraz, hiriaren azterketa, erronka eta behar nagusien identifikazioa, jarduera-ildoak eta 2030era arte erronka horiei aurre egiteko proiektu eragileak jasotzen ditu.





*Gida hau bi ataletan zatitua dago: batetik, pertsonaien
aurkezpena, eta, bestetik, jardueraren proposamena.*

Pertsonaiek Espainiako Hiri Agendaren eta Ermuko Hiri

Agendaren helburu estrategikoei buruzko informazioa

eskaintzen dute. Lotura dute paisaiarekin eta lurraldearekin

(1. ardatza), hiri-ereduarekin (2. ardatza), klima eta

ingurumenarekin (3. ardatza), hondakin eta baliabideen

kudeaketa eraginkorrarekin (4. ardatza), mugikortasunarekin

eta garraioarekin (5. ardatza), gizarte-kohesioarekin eta



aukera-berdintasunarekin (6. ardatza), ekonomiarekin (7.

ardatza), etxebizitzarekin (8. ardatza), digitalizazioarekin (9.

ardatza) eta gobernantzarekin (10. ardatza).

Proposatzen ditugun jarduerak, batetik, Ermuko Hiri

Agendaren helburuak ulertzen, eta bestetik, herrian martxan





dauden edo gauzatzea aurreikusten diren proiektu batzuk
ezagutzen laguntzen dute.

Neska-mutilei ulertzen laguntzeko, webgunean dagoen
dokumentu osoa begiratzea gomendatzen dizugu, eta bai zuk
,bai laguntzen ari zaren haurrak Udalarri proposamenen bat
helarazi nahi badiozue, herritarretzako parte-hartze kanala
erabil dezakezue.

Dokumentu
osoa



Herritarren
parte-hartzea

